



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## **ALDUNDIAK ADINBAKOEN SAREA TXIKIAGOTZEN JARRAITZEN DAU, BAKARRIK DATOZAN MIGRATZAILEEN ETORRERAREN JAITSIEREA DALA ETA**

- **Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatuak agerraldia egin dau Bizkaiko Batzar Nagusietan, EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaia Loiuako zentroko plazen itxieraren ganean egindako galderei erantzuteko**

(Bilbon, 2021eko garagarilaren 15ean). Bagilaren 30ean, Aldundiak bakarrik egozan “262 adinbako atzerritar” artatu ebazan, hau da, martian emondako azken datuak baino 24 plaza gitxiago, eta horrek bakarrik dagozan adinbakoen etorreraren beheranzko joera islatzen dau. Beheranzko joera hori da Loiuako Zabaloetxe zentroko plazen itxieraren atzean dagona, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietan EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaia batera eskatu daben agerraldian azaldu dauenez.

Oposizinoko talde biek Aldundiak Loiuako San Jose Artisaua ikastetxeko Kaputxino Tertiarioekaz “modulu bi” itxeko sinatu eban hitzarmenaren aldaketaren ganean galdetu deusie Foru Aldundiko arduradunari, erabagi horrek enpleoan eragin daikean ondorioakaz. Talde biek aldaketa hori zertan datzan azaltzeko eskatu deusie diputatuari, eta zentroko beharginen eskaerei erantzuteko eskatu deusie, eta baita “epe labur eta ertainerako” plangintzea argitzeko be, bakarrik dagozan adinbakoen arretarako foru ereduan oinarrituta.

Gizarte Ekintzako foru diputatuak azaldu dauenez, babesbakotasun-egoeran dagon kolektibo horri eskaintzen jakon arreta sarea “dimentsionau izanak” justifiketan dau itxierea, bakarrik dagozan adinbako migratzaileen etorrerea “etengabe jaisten” ari dalako. 2018. urtearen amaieran, Bizkaia “599” adinbako artatzen ebazan; aurtengo martian, barriz, kopuru hori “286koa” izan zan, eta joan dan hilebetearen amaieran, barriz, “262koa”. Hori dala eta, Aldundiak “presinoa” jaitsi ahal izan dau, eta, une honetan, “36” plaza dagoz beteta, 60 adinbakorentzat dimentsionauta dagon arren.

Murillok azaldu dauenez, bere sailak, hilebete bakotxaren hasieran, egoeraren jarraipena egiten dau, eta argazki finko horretan oinarrituta, sailak sarea unean uneko egoerara egokitzen dau, “tamainuari eta ezaugarriei jagokenez”. “Zentro gehiago edo gitxiago jarten dira”, eskatzen dan erantzun espezifikoa kontuan izanda, eta une honetan sarea “behar baino handiagoa da”, esan dau. Loiuako zentroko beharginen egoerari jagokonez, Murillok gogorarazo dau Aldundiari ez jagokola **zentroagaz** daukien lan-harremanean sartzea.

### **EGUNEKO ZENTROA ELORRION**

Modu berean, Batzar Nagusietako Elkarrekin Bizkaia Taldeak foru diputatuari galdetu deutso ea mendekotasuna daukien personentzako eguneko zentro bat martxan jarri behar dan Elorrion; izan be, 7.448 biztanle ditu, horreetatik %22 65 urtetik gorakoak, Hector Fernandez



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

ahaldunaren berbetan, eta ohartarazo dau antzeko biztanleria daukien beste udalerrri batzuek, “Balmasedak, Muskizek eta Lekeitiok”, adibidez, eguneko zentroa daukiela.

Murillok azaldu dauenez, Elorrio Durangaldeko eremuan dago, Eudelegaz batera ezarritako Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera. Euskadin zerbitzuen hedapena marketan dauen erreferentzia horrek 68 plaza proiektetan ditu gunehorretan. Foru Aldundiak, “atez ateko” garraio zerbitzurako eskubidea daukien “78 plaza baimendu” ditu, eta, horreetatik, bagilaren 30ean, “59 plaza finantziarazino publikoagaz” egozan beteta; zenbaki horreek erakusten dabenez, eskaerea beteteko “plaza nahiko” dagoz. Horri, Durangon dagon zentroak Ermuko eta Zornotzako mendekoak hartzen dituala gehitu behar jako.

Murillok zehaztu dauenez, Durangaldean “180 persona” dagoz eguneko zentro hori erabilteko moduan, hau da, mendekotasun maila aitortua daukien 80 urtetik gorakoak. Eta beste batzuei mezu bat bialduz amaitu dau berbaldia. Deskribidutako egoerak ez dau baztertzen beste erakunde publiko edo pribadu batzuek Elorrion eguneko zentro bat edegiteko aukerea sustatu ahal izatea.

#### ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENAK

Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintzako Batzordeak Elkarrekin Bizkaia taldearen arauz besteko bi proposamen eztabaidatu ditu, baina ez dira onartu. Lehenengoan, talde moreak Bizitza Independenteari Laguntzeko Programaren urteko ikuskapen- eta kontrol-plan bat proponiduten eban, eta baita diru-laguntza izendunaren egungo eredu aldaztea eta laguntza pertsonaleko eredu “auto-gestionau” baterantz aurrera egitea be. Modu berean, urritasuna daukien persona guztiei bizitza independentea izaten laguntzeko zerbitzurako eskubidearen hedapena Gizarte Zerbitzuen Erakundearen arteko Organura bideratzea eskatzen zan.

Ekimenak EH Bilduren babeseta PPBren abstentzinoa izan ditu, eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak kontra agertu dira. Foru Gobernua eusten dabene talde biek ezezkoa emon dabe, ez dabelako “oztopatu” gura bizitza independenteari laguntzeko eredu barri bat sortzeko Aldundiak urritasunen bat daukien personenen kolektiboen ordezkariakaz edegi dauen lan-mahai bateratua, eta lan horren bilakaerea ikusi arte “itxarotearen” aldeko apustua egin dabe.

Arauz besteko beste proposamen baten bidez, talde moreak, DSBE arautzen dauen araudiak ezarten dituan salbuespenen artean, zentro edo etxebizitza komunitarioetan bizi diran eta buruko urritasuna eta gaixotasuna daukien personak sartzea gura eban, laguntza hori kobratu ahal izan daien. Proposamen bera onartu zan orain dala hilebete bi Enplegu, Gizareratze eta Berdintasun Batzordean, eta, halanda be, Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaiaeren bozeroaleak eutsi egin gura izan deutso martian erregistrau eban ekimenari, Gizarte Ekintzako batzordean be eztabaidatzeko, egoerea ez dalako aldatu. “Bardin” jarraitzen dau. Hori dala eta, DSBE ez jasoteak persona batzuentzat dituen “ondorioak” salatu ditu.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Ekimena bertan behera izteko eskatu ostean, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak uko egin deustie testu bera babesteari. Elena Coria jeltzalearen berbetan, Gizarte Ekintza Sailak “maiatzaren 16an” egindako bilera batean helarazo eutson gai hori Eusko Jaurlaritzari, salbuespen hori Eusko Legebiltzarra izapidetzen hasi dan Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzeko lege-proiektuan sartu ahal izateko. De Madariagaren esanetan, kaltetuek ezin dabe legea eta araudia onartu arte “itxaron”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## LA DIPUTACIÓN SIGUE REDIMENSIONANDO A LA BAJA LA RED DE MENORES POR LA CAÍDA EN LA LLEGADA DE MIGRANTES NO ACOMPAÑADOS

- **El diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo, comparece en las Juntas Generales de Bizkaia para responder a las preguntas de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia en relación al cierre de plazas en el centro de Loiu.**

(Bilbao, a 15 de julio de 2021). A 30 de junio, la Diputación atendía a “262” menores extranjeros no acompañados, lo que representa una caída de 24 plazas con respecto a los últimos datos que se dieron en el mes de marzo, y refleja una tendencia a la baja en la llegada de menores no acompañados. Esta tendencia bajista es la que está detrás del cierre de plazas en el centro Zabaloetxe de Loiu, según ha explicado el diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo, en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia solicitada conjuntamente por EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia.

Los dos grupos de la oposición han preguntado al responsable foral por la modificación del convenio que la Diputación firmó con los Terciarios Capuchinos del colegio San José Artesano de Loiu para cerrar “dos módulos” con la posible afección al empleo que puede suponer esta decisión. Ambos grupos le han pedido al diputado que explique a qué obedece este cambio y le han instado a responder a las demanda de los trabajadores del centro, así como a aclarar la planificación “a corto y medio plazo” en base al modelo foral de atención a los menores no acompañados.

El diputado foral de Acción Social ha explicado que este cierre está justificado por el “redimensionamiento” de la red de atención que se ofrece a este colectivo en situación de desprotección, debido a que se está produciendo un “descenso sostenido” en la llegada de menores migrantes no acompañados. Si a finales de 2018, Bizkaia atendía a “599” menores, en marzo de este año esta cifra se situó en “286” y a finales del mes pasado había bajado hasta los “262”. Las consecuencias para el centro de Loiu es que la Diputación ha podido bajar la “presión” asistencial y, en estos momentos, existen “36” plazas cubiertas cuando se encuentra dimensionado para 60 menores.

Murillo ha explicado que su departamento, a inicios de cada mes, realiza un seguimiento mensual de la situación y en base a esta foto fija, el departamento adapta la red “en tamaño y en características” a la situación de cada momento. “Se dota de más o menos centros” en función de la respuesta específica que se requiere, y en estos momentos la red “está suficientemente sobredimensionada”, ha dicho. En cuanto a la situación de los trabajadores del centro de Loiu, Murillo ha recordado que a la Diputación no le compete entrar en la relación laboral que mantienen con el centro educativo.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## CENTRO DE DÍA EN ELORRIO

Asimismo, el Grupo Juntero Elkarrekin Bizkaia ha preguntado al diputado foral por la puesta en marcha de un centro de día para personas dependientes en el municipio de Elorrio, una demanda vecinal de un pueblo que cuenta con 7.448 habitantes, un “22%” mayores de 65 años, según el apoderado Héctor Fernández, advirtiendo que otros municipios con similar población, como “Balmaseda, Muskiz y Lekeitio”, cuentan con centro de Día.

Murillo ha explicado que Elorrio se encuentra incluido en el área de Durangaldea según el Mapa de Servicios Sociales establecido junto con Eudel. Esta referencia que marca el despliegue de los servicios en Euskadi, “proyecta 68 plazas” en este área. La Diputación tiene “78 plazas autorizadas” con derecho a servicio de transporte “puerta a puerta”, de las que a 30 de junio estaban ocupadas “59 plazas con financiación pública”; números que reflejan que hay “plazas suficientes” para cubrir la demanda. A esto se suma que el centro ubicado en Durango da cobertura a dependientes de Ermua y Amorebieta.

Murillo ha precisado también que existen “180 personas” en el área de Durangaldea potenciales de usar este centro de día, o sea, mayores de 80 años con grado de dependencia reconocido. Y ha concluido su intervención mandando un mensaje a otros. La situación descrita no quita para que otras instituciones, públicas o privadas, puedan promover la apertura de un centro de día en Elorrio.

## PROPOSICIONES NO DE NORMA

La Comisión de Acción Social de la Cámara vizcaína ha debatido dos proposiciones no de norma de Elkarrekin Bizkaia, que han sido rechazadas. En la primera, el grupo morado proponía un plan de inspección y control anual del Programa de Apoyo a la Vida Independiente, así como cambiar el modelo actual de subvención nominativa, y avanzar hacia un modelo de asistencia personal “autogestionada”. Asimismo, pedían trasladar al Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales la extensión del derecho al servicio de apoyo a la vida independiente a todas las personas con discapacidad.

La iniciativa ha contado con el apoyo de EH Bildu, la abstención del grupo Mixto-PPB y el rechazo de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos. Los dos grupos que sustentan al Gobierno foral han argumentado su negativa, porque no quieren “entorpecer” el trabajo que está desarrollando la mesa de trabajo conjunta que la Diputación ha abierto con representantes de colectivos de personas con discapacidad, con el objeto de crear un modelo nuevo de apoyo a la vida independiente, y han apostado por “esperar” a ver cómo evoluciona este trabajo.

A través de otra proposición no de norma, el grupo morado quería que se incluyera, dentro de las excepciones que establece la normativa que regula la RGI, a las personas con discapacidad y enfermedad mental que conviven en centros o viviendas comunitarias, para



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

que puedan cobrar esta ayuda. La misma proposición fue aprobada hace dos meses en la comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, y pese a ello, la portavoz de Elkarrekin Bizkaia, Eneritz de Madariaga, ha querido mantener esta iniciativa que registró en marzo, para que se debatiera también en la comisión de Acción Social, ya que la situación no ha cambiado. Se mantiene “igual”. Por lo que ha denunciado los “efectos” que supone para algunas personas no recibir la RGI.

Tras pedir que retirase la iniciativa, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos se han negado a apoyar de nuevo el mismo texto. Según la jeltzale Elena Coria, el departamento de Acción Social ya trasladó esta cuestión al Gobierno vasco en una reunión mantenida el “16 de mayo” para que pueda ser incorporada esta excepción en el proyecto de Ley para la modificación de la Ley de Garantía de Ingresos e Inclusión Social que ha comenzado a tramitar el Parlamento Vasco. De Madariaga ha insistido en que las personas afectadas “no pueden esperar” a que se apruebe esta ley ni su reglamento.